

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 7,3 egin dute atzera 2024ko irailean

2024ko lehen bederatzi hilabeteetako metatuan esportazioek % 5,0 egin dute behera, baina merkataritza-saldoa positiboa eta 2.600 milioi eurotik gorakoa da

Euskal AEko **ondasunen esportazioak** % 7,3 jaitsi ziren 2024ko irailean, EUSTATen datuen arabera. Zenbatekoa 2.583 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.787 milioien aldean. Ondasun energetikoen esportazioak % 36,5 jaitsi ziren eta ez-energetikoenak % 5,5.

Arabaren esportazioek % 7,5 egin dute behera eta Gipuzkoan % 3,2. Bizkaiak egin du atzera gehien (-%10,6).

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Iraila 2024

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.786.501	2.582.838	-7,3	2.267.648	2.335.636	3,0
ENERGIAZKO GAIK	159.061	101.050	-36,5	588.361	515.543	-12,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.627.440	2.481.789	-5,5	1.679.287	1.820.093	8,4
URTEKO METATUA	24.298.985	23.082.750	-5,0	20.610.612	20.393.695	-1,1
ENERGIAZKO GAIK	1.187.520	1.604.866	35,1	5.247.369	5.440.352	3,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	23.111.465	21.477.883	-7,1	15.363.243	14.953.342	-2,7
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	927.489	858.184	-7,5	532.058	576.052	8,3
URTEKO METATUA	7.694.891	6.628.109	-13,9	4.554.736	4.470.865	-1,8
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.010.470	903.215	-10,6	1.296.462	1.273.485	-1,8
URTEKO METATUA	9.093.104	9.036.770	-0,6	12.094.333	11.880.403	-1,8
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	848.541	821.440	-3,2	439.127	486.099	10,7
URTEKO METATUA	7.510.990	7.417.871	-1,2	3.961.544	4.042.426	2,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal Autonomia Erkidegoko **ondasunen inportazioek** % 3,0ko hazkundera izan zuten, eta 2.335 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio *energetikoek* % 12,4 egin zuten behera eta *ez-energetikoek* % 8,4 egin zuten gora.

Arabako inportazioak % 8,3 igo dira eta Gipuzkoakoak % 10,7, baina Bizkaikoak % 1,8 jaitsi dira.

Merkataritza-saldoa positiboa da (247,2 milioi) eta estaldura-tasa % 110,6koa da.

Produktuen araberako analisisa (muga-zergen partidak)

Zehaztasunetan sartuta, honako hauek dira muga-zergen bost partida esportatzaile nagusiak: *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*, 329,1 milioi esportatu dituztenak, 11 milioi eta 2023ko hilabete berean baino % 3,2 gutxiago; *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*, 217,5 milioi merkaturatu dituztenak, 19,9 milioi eta urtebete lehenago baino % 10,1 gehiago; *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*, 140,8 milioi, hau da, 67,5 milioi eta % 32,4 gutxiago; *Kautxuzko pneumatiko berriak*, 77,3 milioi esportatu dituztenak, aurreko urtean baino 45,3 milioi gutxiago, hau da, % 37,0 gutxiago; eta *Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*, 67,4 milioi merkaturatu dituztenak, 6,6 milioi gehiago, % 10,9 gehiago. Partida horiek, irailean, guztizkoaren % 32,2 dira, eta guztira 832 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Iraila 2024

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	23.082.750
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.857.373
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.773.268
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.092.718
4	2710	Petrolioaren olio finduak	1.078.939
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	792.793
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	469.823
7	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	397.684
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	374.607
9	2709	Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	325.104
10	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	310.270
11	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	303.961
12	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	300.123
13	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaueetarako	289.621
14	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	275.470
15	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	244.765
16	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	237.842
17	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	232.844
18	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaetarako euskarriak	217.724
19	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	209.412
20	7402	Kobre findu gabe; finta elektrolitikoetako kobre anodoak	205.621
21	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	201.966
22	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	198.027
23	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	186.216
24	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatu batzuk	184.462
25	8301	Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	178.655

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabian muga-zergen partida nagusia *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* da, 306 milioi euro esportatu ditu, eta aurreko urteko esportazio-maila berari eutsi dio. Hala ere. Bigarren partida nagusiak, *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* izenekoak, % 32,6 egin du atzera. *Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak* atalaren esportazioak ere % 56,9 jaitsi dira, hau da, 2023ko irailean baino 27,8 milioi gutxiago.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	927.489	858.184	100,0	-7,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	306.209	306.155	35,7	0,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	208.244	140.441	16,4	-32,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	45.367	50.469	5,9	11,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	42.671	49.993	5,8	17,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	48.869	21.055	2,5	-56,9
Ardoa, mahats freskoarena	15.679	18.534	2,2	18,2
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	7.823	14.605	1,7	86,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	6.711	12.984	1,5	93,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	13.787	12.658	1,5	-8,2
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	8.448	8.885	1,0	5,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian nabarmentzekoa da *Petrolioaren edo material bituminosoaren olio gordinak* esportazioen hazkundera (23,1 milioi gehiago, % 85,7ko hazkundearekin). Bestalde, jaitsi egin dira *Petrolioaren olio finduak*, 36,2 milioi esportatu eta aurreko urtean baino 79,2 milioi gutxiago, % 68,6 gutxiago; eta *Kautxuzko pneumatiko berriak*, % 65,9 eta 50,6 milioi gutxiago.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.010.470	903.215	100,0	-10,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	78.179	91.523	10,1	17,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	48.526	52.774	5,8	8,8
Petrolioaren edo mineral bituminosen olio gordinak	26.973	50.101	5,5	85,7
Petrolioaren olio finduak	115.351	36.164	4,0	-68,6
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	28.041	34.408	3,8	22,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	18.523	28.249	3,1	52,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	76.804	26.172	2,9	-65,9
Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	9.533	26.104	2,9	173,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	32.390	21.933	2,4	-32,3
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	16.158	17.288	1,9	7,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, honako sektore hauen igoerak esanguratsuak dira. *Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak eta abar* (25,9 milioi) eta *Makina-erremintarako zatiak eta osagarriak* (17,4 milioi). Hala ere, % 43,9 murriztu dira *Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulstatuak* direlakoan esportazioak, 15,6 milioi utzi baitituzte.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	848.541	821.440	100,0	-3,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	76.771	75.984	9,3	-1,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	58.390	65.001	7,9	11,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.212	27.333	3,3	-15,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	8.005	25.888	3,2	223,4
Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, hozkatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko eta abarretarako makina-erremintak eta prentsak	12.888	20.528	2,5	59,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstauetarako	35.540	19.920	2,4	-43,9
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	16.991	19.682	2,4	15,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	13.236	19.244	2,3	45,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.299	17.758	2,2	8,9
Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	9.038	17.399	2,1	92,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuta, garrantzitsuena *Petrolioaren edo material bituminosoaren olio gordinak* da: 431,5 milioi inportatu ditu, guztiaren % 18,5, baina % 2,5eko beherakada izan du. Haren atzetik doan partida *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* da (% 14,8 egin du atzera eta inportatutakoaren balioa 92 milioira mugatu da). Hamar partida nagusien artean, nabarmena da *10 pertsona baino gutxiagoko turismoen* hazkundera, 30,2 milioi Arabatik erosi baitziren ia osorik.

Jatorri-helmuga herrialdeak, 2024ko iraila

Hilabete honetan, honako hauek dira ranking esportatzailearen lehen postuak:

- **Alemania:** herrialde horretara 436,1 milioi euroko ondasunak esportatu dira, eta estaldura-tasa % 114,9koa izan da.
- **Frantzia:** gure Erkidegotik 400,9 milioi adinako produktuak jasotzen ditu, eta estaldura-tasa % 206,4koa da.
- **Erresuma Batua:** 165,2 milioi euroko balioarekin esportatzen da, % 368,4ko estaldura-tasarekin.
- **Italia:** gure esportazioen 136,9 milioi herrialde horretara bideratu dira, eta estaldura-tasa % 114,5koa izan da.
- **Estatu Batuak:** herrialde horretara bideratutako salmentak 136,4 milioira iritsi dira, eta estaldura-tasa % 199,3koa izan da.

Herrialde horiek esportazio guztien % 49,4 hartzen dute; horietako hiru EB 27koak dira, eta erakunde horrek esportazioen % 65,1 biltzen ditu.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.689 milioi euroko saldo positiboa izan du 2024ko urtarriletik irailera arteko metaturako

Lehenengo bederatzi hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioen kasuan, % 5,0ko jaitsiera erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1.216,2 milioi euro gutxiago. Aldi horretako esportazioen zenbatekoa 23.082,8 milioi eurokoa izan da.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko handienak dira, 9.036,8 milioirekin; Gipuzkoak 7.417,9 milioi ditu eta Arabak 6.628,1 milioi.

Produktu-mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoak* dira handienak, 21.477,9 milioi euroekin.

Xehetasunetan sartuta, ikusten da muga-zergen partida nagusia, 1.857 milioi esportatuta, *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* dela, nahiz eta % 19,2ko jaitsiera izan. Muga-zergen lehen hamar partiden artean nagusi da, eta *Hodietarako txorrotetako, balbuletako eta antzeko organoetako gaiak* atalaren eta *Soldadurarik gabeko hodi eta profil hutsak, burdinazkoak edo altzairuzkoak* atalaren arteko atzerakadak daude.

Multzo horren barruan, esportazioen hazkunde handiena (% 289,6) *Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinetan* gertatu da: 325 milioi esportatu dira eta 241,7 milioi gehiago aurreko urteko aldi berean baino. Atzerakadarik handienak lehen aipatutakoentzat izan dira: *Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*, esportatutako balioa 192,5 milioitan jaitsi da, % 33,9, *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (501,6 milioi eta % 31,5 gutxiago) eta *Kautxuzko pneumatiko berriak* (314,7 milioi eta % 28,4 gutxiago).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.786.501	2.582.838	100,0	-7,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	340.021	329.064	12,7	-3,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	197.621	217.500	8,4	10,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	208.310	140.770	5,5	-32,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	122.643	77.320	3,0	-37,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	60.757	67.400	2,6	10,9
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	49.788	54.587	2,1	9,6
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	26.973	50.101	1,9	85,7
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	49.218	47.073	1,8	-4,4
Petrolioaren olio finduak	118.367	38.755	1,5	-67,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	25.913	37.184	1,4	43,5
Turborrektoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	28.169	34.650	1,3	23,0
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	8.859	28.719	1,1	224,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	41.448	26.828	1,0	-35,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	53.361	26.242	1,0	-50,8
Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	9.939	26.153	1,0	163,1
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	18.773	26.037	1,0	38,7
Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	21.609	24.913	1,0	15,3
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	16.192	24.883	1,0	53,7
Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	13.852	23.104	0,9	66,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	25.685	22.996	0,9	-10,5
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	18.406	21.715	0,8	18,0
Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, hozkatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko eta abarretarako makina-erremintak eta prentsak	13.329	20.786	0,8	55,9
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	14.941	20.749	0,8	38,9
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	22.091	20.642	0,8	-6,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	19.076	20.521	0,8	7,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Azaroaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2024ko lehen bederatzi hilabete hauetako rankingaren arabera, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 16,3arekin (3.751 milioi). Frantziaren atzetik daude Alemania (% 14,3 eta 3.305 milioi) eta Erresuma Batua (% 7,0 eta 1.625 milioi). Horrela, hiru herrialdeen artean, euskal esportazioen ia % 40 (% 37,6) biltzen dira.

Euskal AE osorako inportazioen metatua 20.393,7 milioi euro ingurukoa da. Aurreko urtearekin alderatuta, 2023ko aldi berean erregistratutakoa baino 216,9 milioi gutxiago da.

Hauek dira ranking inportatzaileko lehen hiru postuetan dauden produktuak:

- *Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak* (guztiaren % 19,1), 3.898 milioirekin
- *Petrolioaren olio finduak* (1.233 milioi inportatu)
- *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* (733 milioi)

Arabian, 4.471 milioiko inportazio metatuekin, aldi horretan % 1,8ko beherapena izan da, hau da, 2023ko aldi berean baino 84 milioi gutxiago; Bizkaian ehuneko bera metatu da (-%1,8), 11.880 milioi inportatu baitira (213,9 gutxiago). Gipuzkoaren kasuan, % 2,0ko igoera izan da 4.042 milioirako (80,9 milioi gehiago). *Produktu ez-energetikoen* inportazioak % 2,7 egin du atzera, baina *Produktu energetikoenak* % 3,7 egin du gora.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko urtarriletik irailera, 2.689,1 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 113,2koa.

ESPORTAZIOAK ESTATU BATUETARA

2024ko irailera arte, Estatuko esportazioak esportazio guztien % 7 izan ziren, 1.517,3 milioi euroarekin; 2023an % 8,4 izan ziren, 2.737,9 milioirekin. Jaitsiera % 44,6koa izan da.

Herrialde horretarako esportazioen % 30,6 *Galdarak, motorrak, turbinak, makina eta artefaktu mekaniko askotarikoak eta horien zatiak eta osagarriak* izeneko 84. muga-zergen kapituluaren kontzentratu dira, 464,7 milioirekin. Kapitulu hori 2023an % 18,1ekoa izan zen 496,3 milioirekin, eta herrialde horri egindako salmenten buruan kokatu zen.

73. kapitulua osatzen duten *Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko enbriak* hurrengo postuan daude 194,3 milioirekin, eta 2024ko aldi horretan % 12,8 biltzen dute. 2023an, ehuneko hori % 13,5ekoa izan zen (368,8 milioi).

Hirugarrenik, *Askotariko makinak, aparatuak eta material elektrikoa; irudia eta soinua grabatzeko edo erreproduzitzeko aparatuak, aparatu horien zatiak eta osagarriak* izeneko kapituluaren 85. kapitulua agertzen da: % 10,4 (158,5 milioi) 2024an eta % 5,8 2023an (159,9 milioi).


Laugarrenik, *Erregai mineralak, olio mineralak eta horien destilazioko produktuak; gai bituminosoak; argizari mineralak* daude: % 8,7 eta 132,2 milioi 2024an, eta % 17,9 eta 491,4 milioi 2023an.

Bosgarren postuan *Industria kimikoen askotariko produktuak* daude, guztizkoaren % 5,7 eta 86,3 milioi 2024an eta % 7,0 2023an (192,3 milioi).

Ibilgailu automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko gainerako ibilgailuak, horien zatiak eta osagarriak 2024ko metatua 47,7 milioira iritsi ziren (% 3,1), baina 2023an ranking esportatzailearen hirugarren postuan geratu ziren, % 15,8rekin eta guztira 433,7 milioirekin.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Itunria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62